

# Getxo >MEETING<

## Egutegia eta gaiak, GETXO MEETING 2024

### Urtarrilak 11

**Zehaztu ezazu zure hurrengo urterako sakelako estrategia: Nolakoa nahi duzu izatea zure 2024. urtea?**

Zure enpresari dagokionez urtean zehar bidetik galdu nahi ez baduzu, ezarri itzazu itsasargi gisa balioko dizuten gutxieneko helburu batzuk. Saio honetan, orientazioa eta norabidea zehaztuko dituzu, eta indarberrituko zara, gogor ekiteko (ez gara urte berriko asmoei buruz ari, zuk nahi duzun norabidea hartu dezazun beharrezkoa den gutxieneko estrategiari buruz baizik).

### Urtarrilak 25

**Planteatu zure sakelako plan komertziala 2024rako.**

Urtea ondo amai dadin, helburuak ezarri, eta nahi dituzun diru-sarrerak lortzen lagunduko dizun ibilbide-orri bat egin behar duzu. Pertsona egokiekin bilera egokiak egin ahal izateko, baita elkarlanak bilatu eta ate aproposak jotzeko ere. Zer pauso eman behar diren eta noiz eta nola eman behar diren jakiteko, kalitatezko denbora eskaini behar zaio pentsatzeari. Eta idazteari.

### Otsailak 8

**Hobetu zure aurrekontuak eta proposamen komertzialak.**

Nola bidaltzen dituzu proposamenak? Ba al dute profesionala izateko eta egiten duzunaren balioa islatzeko behar den eduki guztia? Nahi baduzu, feedbacka lortzeko proposamen bat ekarri ahal izango duzu, edo bestela, garrantzitsuak diren gakoak emango dizkizugu.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

[getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



## Otsailak 22

### **Instagrameko zure profil profesionala berrikusiko dugu.**

Benetan islatzen du adierazi nahi duzuna? Askotan, zenbait alderdi zure ikuseremutik kanpo geratzen dira. Azaltzen duzuna ulergarria dela ziurtzat jotzen duzu, nahiz eta batzuetan zure ustez estrategikoak diren hainbat kontu diskurtsotik kanpo uzten dituzun. Zergatik? Begibistakoak iruditzen zaizkizulako.

Baina zure bezeroek ez dute zertan jakin, edo ez dute asmatzeko astirik.

## Martxoak 7

### **Berrikusi zure LinkedIneko profila beste pertsona batzuen laguntzarekin. Aldatu behar da zerbait?**

Zure LinkedIn profila osatzean zalantza asko sor dakizkizuke. Saioan parte hartuko duten pertsonen profilak erakutsiko ditugu. Horrela, profil osoagoak eta lehiakorragoak egiten lagundu ahal izango diogu elkarri.

## Martxoak 21

### **Pentsa itzazu negozio-ideia berriak, soilik bi ordutan.**

Une batzuetan pentsatzen hasi behar da. Eta ez dator ideiarik. Edo gehiegi datoz. Ideia egokiak izateko eta iragazteko metodo baten laguntzaz, zure enpresarako balioko dizuten ideia berriak lortu ahal izango dituzu.

## Apirilak 25

### **Zein da nire kontaktu-sarea? Nola zabaldu dezaket?**

“Ate hotzeko” lan komertzialaz gain (ezagutzen ez zaituen norbaitekin harremanetan jartzea), beste alderdi bat ere zaindu eta bultzatu behar da: sare pertsonala eta profesionala. Sare hori jada baduzu, baina paper gainean jarri behar duzu, hau da, ikusarazi. Ariketa praktiko bat egingo dugu, zeinak kontaktu-sare hori ikusarazten eta zure helburuak lortzen nola lagun diezazukeen ikusten lagunduko baitizu.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

[getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>



Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:

## **Maiatzak 9**

**Netwalking: Zabal ezazu zure kontaktu-sarea oinez zoazen bitartean.**

Networking saioetara joatea ondo dago. Baina batzuetan nahiago duzu ekitaldi horietara ez joan, zure ideiei forma emateko paseo bat eman behar duzulako. Eta biak konbinatzen baditugu? Networking+Walking=Netwalking. Ideiak partekatzeke, zure kontaktu-sarea zabaltzeko eta oinez partekatzeke.

## **Maiatzak 23**

**Presta itzazu ekintza komertzialak udarako.**

Agian goizegi irudituko zaizu udan salmentak areagotzeko udako kanpainetan pentsatzeko. Baina gero denboraz larri ibiltzen zara, ezta? Bi ordutan, zerbitzuak edo ideiak zehaztuko dituzu udan gehiago fakturatzeko.

## **Ekainak 6**

**Zure negozioa kostu handirik gabe sustatzeko ekintzak. Getxo Sormen Hub-en.**

Ekintza komertzial bat egitea ondo etorriko litzazukeela pentsatzen ari bazara, baina ekintza hori garatzeko diru gehiegi inbertitu nahi ez baduzu, zatoz saio honetara. Batez ere, horretan modu produktiboan pentsatzen denborarik ematen ez baduzu. Sormenaren bidez, zure negozioa sustatzeko ideiak izateko modua bilatuko dugu.

## **Ekainak 20**

**Zure estrategian pentsatzeko garaia da. Ekainean, bai.**

Zure negozioa aldatu egiten delako eta urtean zehar birbideratu, birdefinitu eta birpentsatu egin behar delako. Horregatik, hurrengo Getxo MEETINGa desberdina izango da. Zure helburuetan modu sortzailean pentsatzeko. GetxoPHOTO berezia: birdefinitu zure enpresa-estrategia Art Thinking metodologiaren laguntzaz.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

[getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>



Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:

## **Irailak 12**

### **Lanera itzultzea: Ideietatik errealitatera: Prestatu hiru hilabeteen gauzatzeko ekintza-plan bat.**

Urtea irailean hasten dela pentsatzen duten horietakoa bazara, saio hau primeran etorriko zaizu ekintzara pasatzeko. Baita lanari dagokionez uda lasaia igaro baduzu eta abiatzeko fokua eta motibazioa behar badituzu ere. Esan agur opor osteko depresioa delakoari eta esan kaixo ekintzari.

## **Irailak 26**

### **Networkinga Punta Begoñan: Zabaldu zure kontaktu-sarea.**

Iaz bezala, networkinga egingo dugu Punta Begoñan. Ingurune pribilegiatu batean kontaktuak egiteko. Zure aukerak zabaltzeko, ideiak partekatzeko, burua zabaltzeko. Negozioak egitea, baina itsasora begira.

## **Urriak 10**

Ekarri konpontzeko duzun gai bat; irtenbide posibleak eman eta lagundu egingo dizugu. Imajinatzen duzu jakintsuen kontseilu bat zuretzat lanean? Ekarri zure negozioaren inguruan konpondu nahi duzun zerbait eta forma ematen lagunduko dizugu. Batzuetan isolamendutik irten behar da pentsatzeko modua aldatzearren.

## **Urriak 24**

### **Zure webgunea taldean berrikusiko dugu. Testuak edo irudiak aldatzeko garaia al da?**

Webgune bat egiten duzunean, benetako iritziak behar dituzu, zer falta den, zer dagoen soberan edo zer aldatu behar den ikusten laguntzeko. Horretarako, GetxoMEETING saiora bertaratutakoen webguneak ikusiko ditugu denbora errealean, eta horiek hobetzen lagunduko duen errespetuzko feedbacka emango dugu.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

[getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



## **Azaroak 7**

### **2024ko zure akzio komertzialak berrikusiko ditugu. Zer hobetu behar da?**

Ez dizute saltzen irakatsi, ezta? Ikasteko modu bat da ikustea nola joan diren zure azken bilerak edo saltzeko moduak, ea funtzionatu duten eta zergatik. Zure salmenta-elkarriketak aztertzeke saio bat, hurrengo batean zer egitea (edo egiteari uztea) komeni zaizun ikusteko. Edo Instagram bidez saltzen baduzu, zure kanpaina aztertu, eta hobetzen lagunduko dizugu.

## **Azaroak 21**

### **Zer beste zerbitzu edo produktu eskain zenitzake zure enpresan?**

Idea eta aholku gurutzatuak. GetxoMEETINGen parte-hartzaileen artean ideiak partekatzea gustatzen zaigu. Horrela, zure egungo bezeroei zer zerbitzu osagarri eskain diezazkiekezun partekatuko dugu elkarren artean. Zure zerbitzuak zabaltzeko edo dagoeneko egiten dituzun gauzak zerbitzu fakturagarri bihurtzeko.

## **Abenduak 12**

### **Urtearen errepasoa. Azpimarratu zure lorpenen balioa eta irudikatu helburu berriak.**

Poltsikoko urtekari bat eramango duzu zure lorpenak ikusarazteko. Urteko lorpenen errepasoa motibatzeke, datorren urtea animoz abiatzeke eta egin duzun lana baloratzeko balioko dizu. Ikusiko duzu zer-nolako mesedea egingo dizun.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

[getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>



Jarrai gaitzazu: /Síguenos en: